

Gure enpresaren aktiboa, motor birziklatu elektriko bat da.

Motorrak oso erabiliak dira gaur egun gure inguruan, erraztasunez mugiaraztea ahalbideratzen digutelako. Baina hori, gaur egungo beste arazo batekin lotuta dago, izan ere, asko kutsatzen dute. Beraz, proposamen oso indartsu bat dugu: MOTOR BIRZIKLATU ELEKTRIKO bat.

Gure helburua kutsadura murriztea da, motor elektrikoak jada badaude eta kutsadurari aurre egiteko asmakuntza ezin hobea da, baina motorrak egiteko garaian kutsadura ez da murrizten eta guk honi aurre egiteko modua aurkitu dugu; esate baterako, badaude hainbat kotxe elektrizitatea erabiliz mugiarazten direnak eta guk beste aurrera pausu bat eman nahi izan dugu eta motor elektriko bat izateaz gain, motor honen piezak birziklatuak izango dira. Hau da, beste motorren piezak hartu, noski kalitate eta egoera onean daudenak, eta gure motorra osatuko dugu. Honela, kutsadura murriztuko dugu.

Bestalde, elektrikoa denez ezin izango ditu bidaia oso luzeak egin, baina herriz herri ibiltzeko motor aproposa da. Hala ere, bi motor modelo desberdin aukeratzeko aukera emango dugu, potentzia txikikoa eta potentzia handikoa. Honela, gasolinan gastatzen dugun dirua aurrezten dugu. Azken batean, gasolina erabiltzea ere mugatzen dugu, izan ere, baliabide hori gero eta urriagoa da.

Amaitzeko, Euskal produktua izanik gure helburua, nazioartera zabaltzea izango da. Hau da, Euskal Herrian hasi eta mundura zabaldu. Eta ezin dugu ahaztu, enpresa txiki moduan hasiko garela baina handitzeko ideia dugunez, geroz eta enplegu gehiago sortuko ditugu Euskal Herrian.